

Mitxel Sarasketa

«Batzuetan faltan botatzen dut kartzela»

Dolarearen parekoa omen da kartzela, baina zorionez, dolareak ez ditu sartzen dizkioten pieza guztiak xehatzen.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Eibarren eta eibartarren izaerak bereziak direla entzun izan dut beti.

Lehen bai, gaur uniformetasun handiagoa dago. Nire txikitako Eibar garapen industrial ikaragarriko herria zen. “*Eibar la ciudad del dólar*” esaten zuen Alfredo Amestoy telebis-tako aurkezle ezagunak, eta egia zen. Garai hartan langile batek Eibarren Euskal Herriko enpresa edo industrietan baino askoz diru gehiago irabazten zuen, bikoitza ere bai zenbaitetan. Langile tradizioa eta boom industria-la batu ziren eta horrek sekulako hazkundera ekarri zuen. Pentsa, orduan 50.000 pertsona zeuden Eibarren erroldatuta, eta gaur egungo zifra 30.000ren inguruan ibiliko da. Eibar beti izan da industria gune euskaldun bat.

Tailerretako lexikoa beti erabili izan da euskaraz Eibarren. Agian, tailerrak herrigunean zeudelako, gaur egungo bebarru eta beheko pisuetan. Horiek hala, berezko historia eta tradizioa duen herri batean, jendea kalean patrikan dirua duela badabil, normala eibartarrei harrokeria leporatzea.

Zuen belaunaldira tailerrak heldu ziren, euskaraz ez, ordea.

Gurasoak euskaldunak ziren, euskaldun peto-petoak, baina hala ere ez ziguten euskararik pasa. Etxean aitaren familiak agintzen zuen gehienbat eta amamak haurrei euskaraz erakusteari atzerapena irizten zion, berak erdaraz ez jakin arren. Garai hartan, ez gure koadrilan, ez Eibarko kalean, ez zuen inork

euskaraz egiten, nahiz eta batzuek ondo baino hobeto jakin. Pentsa, lagun bati guraso kabroiak zeuzkala esaten genion, etxean euskaraz mintzatzea derrigortzen zutelako. Gerora, ordea, gertutasunagatik, eta euskalduntzeko edo berreuskalduntzeko mugimendua pare-parean egokitu zitzaigulako, nahiko erraz ikasi genuen.

Kaleko langile giro hark piztu zizun kontzientzia politikoa?

Etxean, ama nazionalista zen, EAJren tradiziokoa. Aitak gudarrien bandoan egin zuen gerra, hala mobilizatu zutelako. Beste bandoan tokatu izan balitzaio auskalo zer egingo zuen. Etxean ez geneukan giro politikorik, baina bai galtzailearen ikuspegi politikoa. Kanean, ordea, giro konkretu bat arnasten zen. Eibar beti izan da kontzientzia eta militantzia politiko handiko herria. Guk batetik eta bestetik jaso genuen Euskal Herriaren ideia mitiko bat egiteko beste, langileen grebak eta protestak geure begiz ikusten genituen, ikurrina azaltzeak sortzen zuen

“Garbi dudana da, zuk zure bizitzan hartzen dituzun erabakiak barru-barrutik hartu behar dituzula, eta hortik soilik direla ulergarri”

Nortasun agiria

1954ko urriaren 26an jaio zen Eibarren. Hogeitazero kartzelaldia bete zuen lehen euskal preso politikoa izan zen. Preso zegoela lizentziatu zen kazetaritzan eta euskal filologian, eta espetxetik hainbat liburu itzuli zituen, tartean *Bobby Sands, egun bat nire bizitzan* edo Joseba Sarrionandiarekin batera itzulitako *Hamahiru ate*. Gaur egun, Algortan bizi da, eta itzultzailea izateaz gain, presoen aldeko mugimenduan bere esperientzia ekartzen du.





aztoramendua sumatzen genuen... Hizkuntzaren kontzientziarik ez geneukan, baina bestelakotik osatzen ginen.

Kontzientzia politiko horri bide emateko sartu zinen ETAn?

Garai hartan bide politikoak koadrilatan markatzen ziren. Nahikoa zen koadrilako bat mugimendu komunistan sartzea koadrila guztia komunista izateko. Gure lagun taldea gehienbat abertzalea zen, nahiz eta tartean guardia zibilen semeak edo kanpotik etorritako jendea egon. Sasoi haietan, sozialistek oso modu abstraktuan egiten zuten lan, EAJren militantzia ezkutukoa zen, eta kaleko saltsan, ETA, ezkerreko asanblistak eta komunistak baino ez ziren ibiltzen. Guk oso modu naturalean hartu genuen erabaki hori. Pentsa, gure koadrilatik ETako bi komando atera ziren. Dena den, denboraren talaiaitik begiratuta, ohartzen naiz orduan ez zuela inork ezer esaten ETAn sartzeari buruz, erabaki arrunt samarra zela. Gaur egun, aldiz, asko entzuten da gazteak helburu politiko batzuk lortzeko engainatzen dituztela, sekta moduko bat dela, denak manipulaturik daudela... Erabaki hori ezin liteke ulertu barrutik sentitzen ez baduzu. Gure garaian ere, ez pentsa ETako militante izatea bizitzaren arrakasta bilatzea zenik. Ikuspegi askotatik da ulertezina gazte batek bere bizitza hipotekatzea nekez lortuko duen helburu baten alde. Gure garaian idealismoarekin gauza asko justifikatzen ziren, egun ordea, ematen du idealismoa ez dagoela modan. Horrega-

Nor libreago?

“Sartu berritan, soldaduskako giroaren antza hartu nion kartzelari, baina alde batetik kartzela nahiago dut. Libreagoa da presoak soldadua baino”.

tik, garbi dudana da, zuk zure bizitzan hartzen dituzun erabakiak barru-barrutik hartu behar dituzula, eta hortik soilik direla ulergarri. Zuk gogo edo nahi hori sentitzen ez baduzu nekez ulertuko duzu erabaki hori. Erabaki horiek markatzen dute bizitza, eta ni gustura nago orain arte izan dudanarekin.

Nola gogoratzen duzu 1978ko abenduaren 14a, atxilotu zintuzten eguna?

Harrigarri samarra izan zen. ETako kide liberatua nintzen, Oreretako etxe batean geunden, jaiki berritan, gosalduz *Diario Vasco* irakurtzen. Atea jo, ireki, eta kaleko arropaz jantzitako polizia sartu zen pasillotik metraileta eta guzti. Arraroa egin zitzaidan, ez nuen halako eszenarik espero, pelikula bat iruditu zitzaidan, beldurrik ere ez nuen pasa. Berehala konturatzaren zara, ordea. Zure burua kokatzen saiatzen zara, nondik nora heldu diren zuregana igartzen. Jakina, etxean Joxe Miguel Azurmendi eta biok atxilotu gintuzten, baina une hartan taldeko beste lau kide beste etxe batean zeuden. Beste etxe hartara joaten baziren barrabaskeria gerta zitekeela neukan buruan. Geunden etxetik mendira eraman ninduten, kolpeka hartu, handik komisariara...

Orduko kalabozaok ere ez ziren hotelak izango...

Etengabeko tentsioan egon nintzen. Gurekin batera hainbat jende erori zen, eta ez da erraza hori eramaten. Gerora pentsatu izan dut behar baino gauza gehiago kontatu nituela, baina era berean, gauza asko kolporako gorde nituela. Hor ikusten duzu tortura zer den, nola jokatzaren duten zurekin, nola desegiten zaituzten. Memento batean argazki bilduma bat eman zidaten eta ezagutzen ez nuen argazki bakoitzeko kokotekoak eta muturrekoak ematen zizkidaten. Heldu zen une bat desiratzen nengoena baten bat ezagutzeko. Orduantxe erakutsi zidaten etengabe atxilotzen zuten Eibarko delinkuente xeble baten argazkia, eta nik herrikide eta

adinkidea nuenez, ezagutzen nuela esan nuen. Bi aldiz kolpe gehiago jo zidaten. Torturaren bidez zeu ez izatera eramaten zaituzte, menpekotasunak sortzen dizkizute, dakizuna esateko gogoa piztu. Ulergaitza da zure larruan bizi izan ez baduzu. Horregatik da oso gaitza torturari buruz hitz egitea. Torturaren sentimendua ez dago pertsonaren arrazonamendu logikoaren barruan. Itzela da kontatu nahi duzuna ezin kontatu ahal izatea, eta ezin horretan, pasatakoak birbizitzea. Nire kasuan, dena den, atera zidaten informazioak izorratzen nau gehien. Oso gogorra da beste norbait inplikatzeko, errudun sentsazio asegaitza uzten dizu. Kartzelan “hau agian saihestu nezakeen” pentsatzen zuen jende asko ikusi dut.

Askok esaten dute komisariatik kartzelara heltzea askapen sentsazioa dela.

Topikoa izango da, baina egia galanta. Ni egun bakarrean egon naiz kartzelan egotearekin pozik: lehenengoan. Pentsa jendeak nolako marroiak jaten dituen komisariatik irteteagatik. Pentsa torturatu guztiek torturatzen dituzten momentuan heriotza desio dutela. Hori atzean utzi eta kartzelara iristea arnas handia da. Berriro ere, pertsona sentitzen hasteko besteko arnasa.

Zer da denbora presoarentzat?

Zigorraren neurria. Zuk zer erabakirik ez daukazu bizimodu oso arautuan egotea da kartzela. Leihotik begira jartzen zara eta, zure bizitza bailiran, hodeiak pasatzen ikusten dituzu. Hori da zure denboraren neurria. Askotan iristen zara “zulo honetatik irten barik hilko naiz” pentsatzera, baina hogeituroko kartzelaldian ere denboraren pertzepzioa aldatu egiten zaizu. Gertatzen dena da, kartzelan jendea oso erraz obsesionatzen dela. Ideia bat daukazu ganbaran bueltaka, eta garatu edo bideratu ezin duzunean, zortu egiten zaitu. Obsesioak obsesio, kartzelan ere ez dituzu bizipenak aurrez bizitzen, tokatzen zaizkizunean baizik.

Nola bizi izan duzu zuk sakabanaketa?

Oso kurioa da, oso egoera gogorak pasa ditut, nireak eta bi egin dizkidate, baina ez daukat kartzelaldiaren akordu gogor zehatzik. Sakabanaketarekin berdin. Hasieran, modu kolektiboan eta jende multzo zabaletan egiten genuen dena, eta sakabanaketaren ondorioz bizitza berrantolatu behar izan genuen. Irakurketa, ikasketa eta beste gauzatzu batzuekin nire bizimodua zentratzen asmatu nuen. Hogeituro urtean 54 aldiz aldatu naute espetxez, eta hamasei kartzelatan izan naiz. Garbi dagoena da kartzelan egoteko ez dugula denok berdina balio. Ameriketako

Literatur zale


“Kartzelara sartu aurretik irakur zalea nintzen, eta kartzelan zaletasun horri bide eman nion. Irakurtzeko oso leku egokia da kartzela, eta ni sartu nintzen garaian asko irakurtzen zen. Gaur egun, telebistak daude kartzela guztietan eta askoz gutxiago irakurtzen da”.

www.bertsozale.com

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Arabako
Bertsozale
Elkartea

2009



1. Finalerdia

ZIGOITIA

Kultur Etxea

martxoak 15, igandea

17:00etan

Manex Agirre, Juan Mari Juaristi,
Serapio Lopez, Izar Mendiguren,
Ricardo Gonzalez de Durana,
Iñaki Viñaspre.

Babesle nagusiak:



Babeslea:




argia

AZKEN HITZA

Bizi

"Askotan entzuten dut presoak usteltzen ari direla, eta ez zait gustatzen. Gezurra da. Egoera gogor eta berezian izan arren, presoak bizi dira, borroka egiten dute... Ez dira usteltzen ari".



indioak kartzelaratu eta berehala hiltzen ziren, gutako batzuek hamabost eguneko isolamendurik ezin zuten inolaz ere jasan. Nik gauza horiek ondo eraman izan ditut beti, eta alde horretatik, sakabanaketak ez dit gehiegi erasan. Kolektiboari dagokionez, ordea, ikusi genuen egoera gogorretan hartutako muturreko erabakiek epe luzera arazoak sortzen zituztela. Ez ziren arazo politiko edo ideologikoak, pertsonaren izateari lotutakoak baizik. Horregatik erabaki genuen preso bakarrak ezezkoa ematen bazuen, kartzela horretan ez zela borrokaldirik egingo. Funtsean, sakabanaketa presoen kolektiboa txikitu eta desgiteko saiakera nabarmena izan zen, baina kostuak kostu, indartzeko balio izan digula uste dut.

Nola bizi da negoziazio aro bat kartzelan?

Zauden kartzelaldiaren puntua-
ren arabera, baina oro har gauzak zelan doazen jakin barik eta iritzi desberdinen artean. Beti daude, batetik optimistak, Gabonetarako denak kalean egongo garela esaten dutenak, eta bestetik, beltza baino ezkorragoak direnak. Gogoan dut Aljerreko negoziazioak hautsi zirenean batzuk oso pozik zeudela eta beste batzuk etsiak jota. Garbi dagoena da, kartzelan itxaropenak edukitzea oso txarra dela, zapuzten direnean frustrazio handia sentitzen duzulako. Jendeak, kanpotik, kartzela gauza linealtzat jo dezake, baina tartean pertsonak daude, eta pertsonak egun onak eta txarrak izaten dituzte. Kontua da, kartzelan egun txarra duzunean ere ez duzula inora joaterik, eta aurrera egin behar duzula.

Zuri 1998ko abenduaren 21ean heldu zitzaizun inora joateko eguna. Sarriandian

hitzetan, alta, "preso egon denaren gogoak gartzelara itzultzen da beti".

Neurri batean egia da. Kartzelara itzultzen naiz lagunen senideak ikusten ditudanean, nirekin barruan egondako jendea oraindik barruan dagoela pentsatzen dudanean, espetxe zigorrak etengabe luzatzen ari direla irakurtzen dudanean... Baina bestelako joera ere badago. Preso zaudenean, ateratzean hau eta hura egingo diezula agintzen diezu preso-lagunei, baina irtetean, beste mundu batean lurreratzen zara.

Konponbidean lurra hartuko al du inoiz herri honek?

Konponbidea negoziaketaren bidez planteatzen da, baina nik ez dut halakorik ikusten. Gaur egungo parametro politikoetan ez dut uste Estatuarekin nahi duguna lortzeko bidea

negoziatzerik dagoenik. Beste gauza bat da indar politikoek zenbateraino asmatzen duten Euskal Herria aurrera ateratzeko estrategian. Ni berez ez nago autonomiaren aurka. Independentzia eta autodeterminaziorako bidean beharrezko pausoa bada oso ondo, baina espainolak izateko

bada ez nau asetzen. Gero bi kontu oso ezberdin dira egoera politikoaren garapena eta gizartearen garapena. Nik beti esan dut zentzu batean kartzelan egoteko zortea izan dudala. Kartzelan oso modu nabarmenean ikusten dira botere harremanak. Oso nabarmen ikusten da aginterekin ondo portatzen dena saritzen eta disidenteak zigortzen direla. Horixe bera egiten dute kalean. Nazkatuta nago kontsumo eta espektakulura bideratutako kultur eredu honekin, nazkatuta bizi-eredu indibidualista eta pasibo honekin, eta hola jartzen naizenean, faltan botatzen dut kartzela. ■

"Gaur egungo parametro politikoetan ez dut uste Estatuarekin nahi duguna lortzeko bidea negoziatzerik dagoenik"